



Gizonezko bat, marihuana erretzen.

LEGE BABESA KLUBENTZAT

Kalamu taldeak arautzeko eskatu du Eusko Legebiltzarrak, «segurtasun juridikoa» izateko.

Marihuanari buruzko legea aztertzea ere babestu du

Ez da kalamua legeztatzeko eskaria; apalagoa da, baina bide baten ildo zehaztu du Eusko Legebiltzarrak. Marihuana elkarteei buruzko arau bat egiteko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Talde horiek ez dute lege babesik orain, eta polizia operazioen mende egoten dira maiz. Elkarteei «segurtasun juridikoa» ematea nahi du legebiltzarrak. Jaurlaritzaren esku geratu da eskaria: adikzioen legearen bidez egingo du arauketa. Harago jo du parlamentuak, ordea: marihuanari buruzko legeak berrikus-tea galdegin dio Espainiari.

Bi urte eta erdiko bidearen ostean iritsi da erabakia. Kalamu klubei buruzko lantalde bat abian izan da parlamentuan, talde guztiek babestuta. Osasun batzordeak baiezkoa eman dio testuari, eta osoko bilkurara helduko da orain.

Adostasun erabatekorik ez du lortu ebazpenak. Lantaldea osatu zutenean, bai, batuta zeuden talde guztiak, baina PPK atzera egin du orain, esanez erkidegoek ezin dutela marihuanari buruzko araurik egin, Espainiarena dela eskumen hori. EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk babestu dute ebazpena.

Kontsumo terapeutikorik ez

Kalamu elkarteei eskubideak eta betebeharrak ezartzea da proposamen nagusia. Gaur egun, linbo juridiko batean daude, arau zehatzik gabe. Hori aldatzeko agindu dio legebiltzarrak Jaurlaritzari, adikzioen legea taxutzen ari dela baliatuz. Denbora

joango da arau hori egiterako, eta bitartean taldeak eurak «autorregulatzea» nahi du parlamentuak. Nolanahi ere, kontsumo terapeutikoa kalamu elkarteetatik kanpo utzi behar dela azaldu dute ebazpenean.

Ohiko errealitatea da kalamuaren kontsumoa, egunerokoa, eta hori «arduratzekoa» dela ohartarazi du legebiltzarrak. Osasun aldetik gogoeta egiteko eskatu du: «Aparla da arriskuaren pertzepzioa». Prebentzioan indar handiagoa jartzeko eskatu du, kontsumoa mugatzeko eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko. Zeregin horretan klubek izan dezaketen rolaekin itxaropentsu agertu da parlamentua: «Osasun publikoa babesteko subjektu erantzunkideak izan ahalko dira».

Urrats mugatua da atzo legebiltzarrak egindakoa. Elkarteen jarduna araututa ere, ez baita erabateko babesik izango. Hortaz, Espainiari eskatu dizkiote pauso gehiago; batetik, arauak berrikustea, «lege euskarri seguru eta ulergarria» lortzeko; bestetik, legeen interpretazioa argitzea, «segurtasun falta» baztertze aldera.